

CIC biomaGUNEren biomedikuntzako proiektu batek "la Caixa" Fundazioaren bultzada jaso du

CaixaResearch Validate deialdiak aukera emango du birika-aireztapena ikusarazteko tresna berri bat pazienteei hurbiltzeko

Jordi Llop ikertzailea buru duen proiektuak, laguntza ekonomikoaz gainera, teknologia-transferentziako eta teknologia merkaturatzeko trebakuntza espezializatua jasoko du

Donostian, 2022ko uztailaren 12an. CIC biomaGUNE Biomaterialen alorreko Ikerketa Kooperatiboko Zentroko Jordi Llop ikertzailea buru duen proiektu batek CaixaResearch-en laguntza jaso du, [birika-aireztapena ikusarazteko tresna bat](#) garatzeko. "la Caixa" Fundazioak Espainiako eta Portugaleko punta-puntako ikerketa biomedikoko [15 proiektu](#) sustatu ditu CaixaResearch Validate 2022 deialdian, eta horietako bat da CIC biomaGUNEren proiektua. Hasierako fasean dauden proiektuak dira, eta entitateak lagundu egin nahi die merkatura azkarrago irits daitezen, eta, hala, haien beharra izan dezaketen pazienteetara hurbiltzeko.

Bizi- eta osasun-zientzien arloko Europako aditu eta profesionalen osatutako talde batek 15 proiektu hautatu ditu deialdira aurkeztutako 110 proiektuetatik. Hautatutako proiektuek 100.000 eurorainoko diru-laguntza jasotzen dute, beren teknologiak baliozkotzeko, eta balorizatzen ibilbide-orria diseinatzeko. Hala, CaixaResearch Validatzen berrikuntza eta ezagutza- eta teknologia-transferentzia sustatzen ditu, ikerketan oinarritutako produktu eta enpresa berriak sortzen lagunduz.

Àngel Font Ikerketa eta Osasuneko zuzendari korporatiboaren hitzetan, "laguntza-deialdi honekin, laborategiaren eta merkatuaren arteko hesia hautsi nahi dugu; balioa erantsi nahi diogu Iberiar penintsulako ikertzaileek sortutako ezagutza zientifikoari, eta, finantziarioaren eta aholkularitzaren bidez, haien berrikuntzak hurbildu nahi dizkiegu gehien espero dituztenei: pazienteei".

Birika-aireztapena ikusarazteko tresna berria

Prebalentzia handiko eta eragin sozioekonomiko handiko gaixotasun askok, hala nola biriketako minbiziak, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoak, asma eta, orain, COVID-19ak, biriketako aireztatze-arazoak eragiten dituzte. Gaixotasunaren diagnostiko goiztiarra egiteko, haren larritasuna eta bilakaera ebaluatzeko eta pazienteak tratamenduei ematen dien erantzuna ebaluatzeko, birika-aireztapena zehaztasunez ikusteko aukera emango duen tresna mediko bat behar da. Gaur egun erabiltzen diren metodoetan, erradioaktiboki markatutako aerosolak baliatzen dira eta fotoi bakarrek emisio bidezko tomografiak bistaratzen (SPECT, ingelesezko siglen arabera); baina ez dute nahikoa doitasunik, erradiazio-dosi esanguratsu bat ematen zaio pazienteari eta osasun-zentroetan erabilera-arazoak sortzen dira.

Jordi Llopek gidatzen duen CIC biomaGUNEko [Erradiokimika eta Irudi Nuklearreko Laborategia](#) ikerketa-taldeak birika-aireztapena doitasunez eta eraginkortasunez ebaluatzeko aukera ematen

duen erradiofarmako bat garatu du, zeina positroi-emisio bidezko tomografia (PET, ingelesezko siglen arabera) izeneko irudi-teknikarekin batera erabiltzen baita —SPECTa baino askoz ere zehatzagoa—. Animalia-ereduetan arrakastaz probatu dute, eta, proiektu honetan, irtenbide teknologikoetan eta haren segurtasunaren ebaluazioan lan egingo dute, tresna hori klinikara eramateko, erreferentziazko metodo berri gisa kokatzeko, eta, hala, irtenbide eraginkor bat helarazteko munduan arnas gaixotasunak dituzten paziente guztiei.

Ebaluazio preklinikoa eta garapen teknologikoa 2023aren amaieran bukatzea espero da, eta startup berri batek aukera emango du teknologia balorizatu eta bigarren faserainoko saiakuntza klinikoak osatzeko inbertitzaileak erakartzeko. Jordi Llop taldeko ikertzaile nagusiaren iritziz, “laguntza honek bultzada handia emango dio proiektuaren garapenari. Batetik, funtsezko diru-sarrerara bat da, boluntario osasuntsuekin lehen saiakuntza klinikoak etorkizun hurbil batean egin ahal izateko behar den ebaluazio preklinikoa eta garapen teknologikoa egiteko. Bestetik, ikerketataldeak aukera izango du goi-mailako prestakuntza espezifiko jasotzeko, bai eta laguntza pertsonalizatua jasotzeko ere, azken helburua lortzeko beharrezkoak diren etapak egin ahal izateko, hau da, diagnosi-tresna ingurune kliniko asistentzian finkatzea”.

CaixaResearch Validateri buruz

Laguntza hauen helburua da bizi- eta osasun-zientzietako produktu eta enpresa berrien sorrera sustatzea, eta ikerketaren emaitzak gizartera eta merkatura irits daitezen laguntzea. Deialdia Caixa Capital Risc-ekin lankidetzan egiten da, eta Portugaleko Zientzia, Teknologia eta Goi Mailako Irakaskuntzarako Ministerioko Fundação para a Ciência e a Tecnologia (FCT) fundazioaren kidetzarekin, lankidetzan hispanoportugaldarra sustatzeko Iberiar penintsulako ikerketa-zentroen eta unibertsitateen artean.

CIC biomaGUNEri buruz

CIC biomaGUNE biomaterialen alorreko ikerketa kooperatiboko zentroak, zeina Basque Research and Technology Allianceko ([BRTA](#)) kide baita, punta-puntako ikerkuntza egiten du Kimikaren, Biologiaren eta Fisikaren arteko eremuan, eta arreta berezia jartzen du nanoegitura biologikoen eskala molekularreko propietateetan, bai eta haien aplikazio biomedikoetan ere 2018an, “María de Maeztu” Bikaintasun Unitate izaera aitortu zioten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeintzuen bereizgarri baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian.